

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIKO UDALA

**Behin betiko onarpena ematea 7 zenbakiko zerga ordenantzaren 18. eranskinaren aldaketari. Ordenantza horrek arte eskolaren zerbitzua jasotzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen du**

Udalbatzak, 2014ko uztailaren 31ko osoko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion arte eskolaren zerbitzua jasotzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen 7 zerga ordenantzaren 18. eranskinaren aldaketari (14054H600 espediente). Iragarki hori 2014ko abuztuaren 13ko ALHAOn (91 zk.) argitaratu zen. Haren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea bukatuta, erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, halaxe agintzen baitu martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, toki ogasunak arautzen dituen legearen testu bateratua onartzen duenak, 17.3 artikuluan. Horrela, bada, jendaurrean jartzen da, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta aipatutako Legegintzako Errege Dekretuak 17.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako. Zerga ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Hona hemen zerga ordenantzaren testu aldatua hitzez hitz:

#### **7.18 ERANSKINA. ARTE ESKOLAN IKASTAROAK EMATEKO ZERBITZUAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK**

##### **1. artikulua. Lege oinarria**

Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duenak, 20. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Arte Eskolan ikastaroak emateko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa ezartzen da.

##### **2. artikulua. Subjektu pasiboa**

Amurrioko Udalak antolaturiko margolaritza eta eskulangintza ikastaroetan matrikulatzen diren pertsona fisikoek ordaindu beharko dute Arte Eskolan ikastaroak emateko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa hau.

##### **3. artikulua. Tarifa**

1. Ikastaro bakoitzagatik ordaindu beharreko zenbatekoa ikastaroa hasi baino lehen ordainduko da, Amurrioko Udalak adieraziko duen banku kontuan dirua sartuta.

2. Margolaritza tailerrak: ikastaro bakoitza hasi baino lehen sortuko dira tasa guztiak, Amurrioko Udalak matrikula ordaintzeko finkatuko dituen egunetan. Amurrioko Udalak tasa bakarraren ordainketa zatikatzea erabaki lezake.

3. Eskulangintza lantegiak: ikastaro bakoitza hasi baino lehen sortuko dira tasa guztiak, Amurrioko Udalak matrikula ordaintzeko finkatuko dituen egunetan. Amurrioko Udalak tasa bakarraren ordainketa zatikatzea erabaki lezake.

Ikastaroan zehar birritan egin daiteke matrikula, bata bestearen jarraian eta urte natural ezberdinetan. Lehenengo lauhilekoan matrikulatzeak ez dakar berekin bigarreanean matrikulatzeko eskubidea ezta betebeharra ere. Lauhileko bakoitzaren hasieran ordainduko dira tasak, matrikula ordaintzeko finkatutako egunetan.

4. Ez da aurreikusten ikastaroa hasi eta gero tasa itzultzea. Tasa bakarrari ordainketa zatikatu aplikatuz gero, sortutako tarifa zati bat baliogabetzea erabaki ahal izango da, ordaintzeke dagoen zatian baino ez, honako egoeraren bat ematen denean:

a) Ikaslea edo guraso ahala duen guraso edo tutoretariko bat hiltzen bada.  
b) Ikasturtea hasi ondoren, Amurrioren bizi zen ikaslearen familia unitatea beste herri batera bizitzera joaten bada.

c) Ikaslea edo guraso ahala duen guraso edo tutorea lanik gabe geratzen bada.

d) Ikaslea hamabost egunez baino gehiagoz ospitaleratuta egon bada.

5. Tasak ondokoak izango dira:

2014-2015 ikasturtea eta hurrengoak:

a) Margolaritza tailerra; 180 orduko ikastaroak emateagatik: 317,25 euro.

b) Margolaritza tailerra; 120 orduko ikastaroak emateagatik: 211,50 euro.

c) Margolaritza tailerra; 90 orduko ikastaroak emateagatik: 158,64 euro.

d) Margolaritza tailerra; 60 orduko ikastaroak emateagatik: 105,75 euro.

e) Margolaritza tailerra; 45 orduko ikastaroak emateagatik: 79,31 euro.

f) Eskulangintza tailerra; 120 orduko ikastaroak emateagatik: 211,50 euro.

g) Eskulangintza tailerra; 90 orduko ikastaroak emateagatik: 158,64 euro.

h) Eskulangintza tailerra; 60 orduko ikastaroak emateagatik: 105,75 euro.

i) Eskulangintza tailerra; 45 orduko ikastaroak emateagatik: 79,32 euro.

6. 2015-2016 ikasturtetik aurrera, tarifak urtero eguneratuko dira, eta urte natural bakoitzaren irailaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak. Eguneratze hori egiteko, aurreko urteko abenduaren 31n Euskal Autonomia Erkidegoak zuen Kontsumoko Prezioen Indizea, Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratzen duena, aplikatuko da.

7. Plaza hutsak geratuz gero, beste ikasle batzuk sartu ahal izango dira hasitako edozein taileurretan. Horrelakoetan, matrikularen zenbateko osoa ordainduko da, edo bestela, zenbatekoaren erdia, ikasleak ikasturteko bigarren lauhilekoan hasten badira tailer horretan.

#### 4. artikulua. Matrikulazioa

Matrikulazioa eta ordainketa egiteko epeak hasi baino lehen, izena aurretik emateko epea irekiko da. Aurreko epe hori bukatu eta gero, aurretik izena emandakoen zerrendak Kultura Etxean edo Amurrioko Udalak erabakitzen duen beste toki batean argitaratuko dira eta eskaera gehiegi egonez gero lekuen zozketa egingo da. Aurretik izen ematerakoan izan den ordena ez da lekuak esleitzeko irizpidetzat hartuko. Amurrioren erroldatutako pertsonak lehentasuna izango dute erroldatuta ez daudenen aldean. Matrikulazioak benetako balio izan dezan tasa ordaindu izana egiaztatzen duen banku agiria aurkeztu beharko da; betiere matrikulazio epearen barruan.

#### 5. artikulua. Hobariak

1. Tasaren ehuneko 20ko hobaria ofizioz egingo da, baldin eta ikasleak ikastaroa hasten den egunean Amurrioko udalerrian gutxienez urtebete erroldatuta daramala egiaztatzen bada.

2. 5.1. puntua betetzen duten ikasleek tasaren ehuneko 30eko hobaria izango dute, baldin eta ikasleek ikasturtea hasten den urtean 65 urte edo gehiago beteta dituztela egiaztatzen bada. Eskulangintzaren bigarren lauhilekorako, 65 urteak ikasturtea hasi eta hurrengo urtean bete ahal izango dira.

3. 5.1. puntua betetzen duten ikasleek tasaren % 30eko hobaria izango dute, baldin eta familia ugariaren kideak direla eta familia unitate osoa Amurrioko udalerrian erroldatuta dagoela egiaztatzen badute. Nahitaezkoa izango da familia ugariaren agiriaren edo txartelaren fotokopia konpultsatua aurkeztea matrikula egiterakoan.

4. 5.1. puntua betetzen duten ikasleek tasaren % 30eko hobaria izango dute, baldin eta ikasleek langabezian daudela egiaztatzen badute. Nahitaezkoa izango da langabeziako txartela aurkeztea matrikula egiterakoan.

5. Ezin izango dira euren artea metatu ordenantza honen 5.2., 5.3., 5.4. eta 5.5. puntuetan adierazitako hobariak.

#### **6. artikulua. Materiala**

Tailerrak egiteko beharrezko materialak ikaslearen konturakoak izango dira.

#### **XEDAPEN IRAGANKORRA**

Ordenantza hau ikastaroa hasi eta gero indarrean sartuko balitz, ordenantza indarrean sartzen den egunean sortuko litzateke tarifa.

#### **AZKEN XEDAPENA**

Arte Eskolan ikastaroak emateko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen 7.18 zenbakiko eranskina ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean, eta indarrean jarraituko du harik eta aldatu edo indargabetzen den arte.

Amurrio, 2014ko irailaren 19a

*Alkatea*

*M. JOSUNE IRABIEN MARIGORTA*